



*Bigarren Lehendakariordea eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko Sailburua
Vicepresidente Segundo y Consejero de Economía, Trabajo y Empleo*

AGINDUA, 2026KO MAIATZAREN 15EKOA, GOBERNUAREN BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA, BIZKAIKO ERAIKINEN ETA LOKALEN GARBIKETA-SEKTOREKO LANGILEEK EMATEN DUTEN GIZARTEKO EZINBESTEKO ZERBITZUA BERMATZEN DUENA, 2026KO MAIATZAREN 19AN, 20AN ETA 21EAN DEITUTAKO GREBAN.

ELA eta LAB erakunde sindikalen ordezkariak 2026ko maiatzaren 19, 20 eta 21erako, deitutako greba deialdia egin dute Bizkaiko eraikinen eta lokalen garbiketa-sektorean, lanaldi osoan egikarrituko dena.

Greba-deialdiaren helburua Lan Agintaritzari bidalitako jakinarazpenean dago jasota. Jakinarazpen hori hasitako espedientean dago.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta osasuna. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako oinarrizko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarrizko eskubideetako bat bera ere.

Argi dago oinarrizko eskubideak murrizten dituen edozein neurriren konstituzionaltasuna proportzionaltasun-printzipioak zehaztu behar duela, eta printzipio hori gainditu egiten dela neurriak Konstituzio Auzitegiak ezarritako hiru betekizun edo baldintza betetzen ez baditu (122/1990 KAE, 123/1990 KAE, 8/1992 KAE eta 123/2003 KAE):

1. Egokitasun-judizioa. Haren aplikazioak proposatutako helburua lor dezake.
2. Premia-judizioa. Egoera ikusita, ez dagoela neurri egokiagorik eraginkortasun bereko helburu hori lortzeko.
3. Proportzionaltasun-judizioa. Emandako neurria edo konponbidea haztatua edo orekatua izatea, haren aplikaziotik interes orokorrerako onura edo abantaila gehiago eratoritzen direlako gatazkan dauden beste ondasun edo balore batzuei kalteak baino.

Gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak ematen direla ziurtatzeak muga bat dakar greba-eskubidea egikaritzeko; hori dela eta, beharrezkoa eta ezinbestekoa da jokoan dauden interesen artean haztapan bat ezartzea. Hala, grebalarien eskubidea mugatu egin beharko da – amore eman beharko du, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan –, baldin eta grebaren bidez beren interesak defendatzeak kalte larriagoa eragiten badio edo eragin badietzaioke funtsezko zerbitzua emateko eskubidearen hartzaileari edo titularrari, beren aldarrikapenen edo asmoen arrakastarik ezak baino. Horretarako, hizpide dugun greba-deialdiaren ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Greba honen deialdiaren esparruan eragindako zentroak askotarikoak eta heterogeneoak direla egiaztatu da, hala aritzen diren jarduerarengatik nola haien egiturarengatik. Kasu batzuetan, deitutako grebak eragina dauka gizarteko ezinbesteko zerbitzuak diren jarduerak egiten dituzten zentroetan, hala nola, osasun-zentroetan, gizarte-zerbitzuetan (egoitzetako arreta-zerbitzuetan, eguneko zentroetan, eta adin txikikoen egoitzetan eta etxebizitza komunitarioetan) eta hezkuntzan. Hala ere, nahiz eta deitutako grebak eragina daukan gainontzeko zentroetako eta instalazioetako batzuetan ematen den zerbitzua publikoa ere baden, zerbitzu publiko honek greba honi dagokionez ez dauka gizarteko ezinbesteko zerbitzuen izaerarik, zeren hauetan garbiketa-ekak ez baitie oinarritzko eskubideei eragiten; eta beraz, greba honek dauzkan ezaugarriak direla-eta, ez da egokitzen jotzen gutxieneko zerbitzuak ezartzea.

Denbora-eremuari dagokionez, segidako hiru eguni eragingo dien greba da, zehazki, maiatzaren 19, 20 eta 21ari, lanaldi osoan..

Horrenbestez, behar bezala babestu behar dira bizitzarako, osotasun fisiko eta moralerako eta osasun-babeserako eskubideak —Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan jasotakoak—, zeinak agintari publikoek bermatu behar dituzten beharrezko zerbitzuak eskainiz eta prebentzio neurriak ezarriz, eta, aldi berean, greba egiteko eskubidea zilegi dela kontuan hartuta. 10.1. artikulua xedatzen duenez, gizabanakoaren duintasuna ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri da. Halaber, Konstituzioaren 49. artikulua xedatzen duenez, «Botere publikoek aurreneurri-, tratamendu-, bizkortze- eta gizareratze-politika egingo dute elbarri fisikoentzat, zentzumen-elbarrientzat eta elbarri psikikoentzat; horiei, eurek behar duten arreta berezia emango zaie, eta bereziki babestuko dira, titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideak egikaritu ahal izateko».

Bestalde, osasunaren babesa herritarrek gutxieneko osasun-prestazioak eskatzeko duten eskubide gisa islatzen da, giza duintasunaren eta estatu bakoitzaren garapen sozial eta ekonomikoaren arabera. Hala, Giza Eskubideen Adierazpenak (NBE, 1948) 25.1 artikuluan dioenez, «Pertsona orok du osasunerako eta ongizaterako eskubidea, eta, bereziki, laguntza medikorako eta beharrezko gizarte-zerbitzuetarako», eta zentzu berean adierazten dira Europako Gutun Sozialaren 11. artikulua, Europako Kontseiluarena (Turin, 1961) eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren (NBE 1966) 12. artikulua.

Inguruabar hauek direla eta, gobernu-agintaritzak gutxieneko zerbitzuak ezartzen ditu lehen aipatutako eta Agindu honetan zehaztuta geratzen diren hiru eremuetan zerbitzu jakin batzuen funtsezkotasuna bermatzearen; izan ere, gutxieneko zerbitzurik ez ezartzeak grebaren

bitartez lortu nahi den helburua baino askoz ere kalte handiagoak eragin litzake, zeren arriskuan jar baitaiteke horietan arreta jasotzen duten pertsonen osasuna, bai eta kasu batzuetan bizia ere, haien zaurgarritasun berezia dela-eta.

Horren haritik, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-dekretuaren 10. artikuluko bigarren paragrafoak «gobenuaren agintaritzari» esleitzen dio greba-kasuetan horrelako zerbitzuak ematea ziurtatzeko beharrezko neurriak hartzeko –hala badagokio– eskumena; Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak horren inguruan egindako interpretazioaren arabera (besteak beste: 11/1981 epaia, apirilaren 8koa; 26/1981 epaia, uztailaren 17koa, eta 51/1986 epaia, apirilaren 24koa), erreferentzia hori Gobernuari edo gobernu-ahalmenak egikaritzen dituzten organoei dagokie.

Baina eskumen hori gauzatzeak ezin du, inondik inora, de facto ezabatu greba egiteko eskubidea, ezta eskubide horren edukia hutsaldu ere, eskubidea gauzatu bitartean bermatu beharreko gutxieneko zerbitzuek normaltasun-itxura emanda; horrela, izaera mugatzailea kontuan hartuta ezarri beharrekoa da. Horregatik, dagoeneko ezarrita dagoen jurisprudentzia jarraituz, beharrezkoa da, izaera mugatzaile horren barruan, proportzionaltasun egokia ere bermatzea, babestu beharreko gainerako eskubideei begira; hala, ongi arrazoitu eta justifikatu behar dira murrizketa horiek.

Osasun-esparruari dagokionez, zikinkeria (agente biologiko askorentzat mantengugaiturria) ezabatzea, erraza izan arren, edo hain zuzen ere erraztasun horregatik, arrisku biologikoa prebenitzeko neurri garrantzitsuenetako bat da. Garbiketa eta desinfekzioa dira, esterilizazioarekin batera, elementu primarioak eta eraginkorrenak infekzioaren kate epidemiologikoa hausteko ospitaleko ingurumena deritzonengan. Ondorioz, ospitaleratutako pertsonen eta larrialdi- eta kirurgia-zerbitzuetara doazen pertsonen zori zaien arretak gutxieneko higie-mailari eusteko eskatzen du osasun-zentro horietan, Konstituzioaren 43. artikuluan ezarritako osasun-eskubidea babestearren.

Gizarte-zerbitzuen eremuan, egoitzetako arreta-zerbitzuek (tutoretzapeko apartamentuek, etxebizitza komunitarioek eta egoitzek), eguneko zentroek eta adin txikikoen egoitzek eta etxebizitza komunitarioek «ezinbesteko» izaera dute, neurri handi batean, haien prestazioen onuradunak mendekoak direlako, izan ere, kasurik gehienetan gabezia handiak dauzkate beren osasunean, eta autonomiarako eta legez onartuta dituzten mendekotasun-gradu ezberdinei arreta emateko, sistemaren laguntza integrala behar dute. Horri gehitu behar zaio laguntza pertsonalaren osagai handia behar dutela, eguneroko bizitzako zereginak egiteko. Konstituzioak bereziki babesten ditu pertsona horiek guztiak, Konstituzioaren 50. artikulua horrelaxe xedatzen baitu, eta halaber Konstituzioaren 15. eta 43.2. artikuluetan jasota dauden bizirako, osotasun fisikorako eta moralerako eta osasunerako eskubideek ere horrelaxe xedatzen baitute, bai eta gizabanakoen duintasunak ere horrelaxe xedatzen baitu, zeina ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarritzat jotzen baita Konstituzioaren 10.1. artikuluan.

Zentro hauen erabiltzaileek jasotzen dituzten arreta zuzeneko zerbitzuak ez ezik, badira neurri txikiagoan bada ere ematen zaizkien beste zerbitzu batzuk, zeinak zeharka lehenengo mendekoak baitira. Haien artean daude zentroetako eta haien instalazioetako garbiketa-zerbitzuak. Horri dagokionez, oinarritzko garbiketa beharrezkoa da behar den higie

bermatzeko, pertsona erabiltzaileen osasuna arriskuan jar ez dadin, eta eginkizun horiek betetzeko langileen % 20 ezartzen da.

Hezkuntza arloan, Umeen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak, Espainiar Estatuak 1990eko azaroaren 30eko Instrumentuaren bidez berretsita, 24. artikuluan xedatzen du umeei ahalik eta osasun-mailarik handienaz gozatzeko eskubidea dutela, eta horretarako funtsezko elementuak dira higiena, ingurumen-saneamendua eta istripuen prebentzio-neurriak. Horregatik, eta umeei egunaren zatirik handienean greba-deialdiak eragindako ikastetxe horietan egoten direnez gero, beharrezko neurriak hartu behar dira aipatutako zentroetan gutxieneko higiena- eta osasungarritasun-baldintzak egon daitezen; haien osasuna, hazkundera eta garapena arriskuan jar ez daitezten; betiere gazteenek higienari buruzko ezagutza-gaitasun txikiagoa dutela bereziki aintzakotzat harturik.

Beraz, greba-deialdi honen iraupena kontuan hartuta, beharrezkoa da haur-eskolak, ikastetxeak eta haur-hezkuntzako gainerako gelak eta haurzaindegia egunero garbitzea. Gainera, lan-agintaritzaren ustez, beharrezkoa da bermatzea komunak garbituko direla, bai eta lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetatik hondakin organikoak bildu eta erretiratuko direla ere, grebaren hiru egunetako batean, zehazki, 2026ko maiatzaren 21ean.

Gutxieneko zerbitzu horiek 2026ko otsailaren 19ko Aginduan ezarri ziren, zeina sektore horretan bertan 2026ko otsailaren 24rako eta 25erako eta 2026ko martxoaren 16rako eta 18rako deitutako greban eman baitzen baita 2026ko apirilaren 24ko Aginduan ere, 2026ko apirilaren 28rako, 29rako eta 30rako deitutako greban. . Era berean, berdina jokatu da 2022ko ekainaren 8ko, 2025eko abenduaren 15eko eta 2023ko maiatzaren 19ko aginduetan, eraikinak eta lokalak garbitzeko sektorean deitutako greben harira, lehenengo bietan, Bizkaian, eta hirugarrenean, Gipuzkoan; sektore sanitarioarako eta gizarte-zerbitzuen sektorerako, 2019ko martxoaren 8an, 2019ko irailaren 27an, 2020ko urtarrilaren 30ean, 2023ko azaroaren 28an, 2024ko irailaren 26an eta 2025eko urriaren 15ean deitutako greba orokorren harira emandako aginduetan; eta, hezkuntza-sektorerako, 2024ko maiatzaren 9ko Aginduan, Gizatzen SA enpresako langileentzat deitutako greban, Donostiako Udaleko eraikinak garbitzeko zerbitzua ematen zutenetan.

Agindu horiek, greba-deialdi honetan gutxieneko zerbitzuak finkatzeko premisa juridikoa izan gabe – doktrina konstituzionalak debekatutako inferentzia –, aukera ematen dute egiaztatzeko agindu honek babestu nahi dituen eskubide eta ondasunetan – grebarena barne – eragin positiboak edo negatiboak izan dituztela deialdi horietako gutxieneko zerbitzuek ezarritako babesei dagokienez. Horregatik, eta kontuan hartuta antzekotasun funtzionala, lurraldekoa eta aldi baterakoa, bai eta eraginpeko pertsonen kolektiboena ere (enpresak, grebarekin bat egin duten pertsonak eta zentroetako erabiltzaileak), agindu honek orain arte ezarri diren gutxieneko zerbitzuei eusten die.

Gobernu Agintaritzari gai honetan eskumen eksklusiboa esleitzeak bermatu nahi du greba-eskubidearen erabilera izan behar dituen mugak Zuzenbidearen arabera baino ezin izango direla ezarri, oinarritzko beste eskubide batzuk betetzera bideratutako funtsezko zerbitzu jakin batzuei eustearren, eta gobernatzeko erantzukizuna eta ahala duenak bakarrik.

Hori dela eta, Lan Harremani buruzko Errege Lege-Dekretuaren (martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-Dekretuaren) 10.2. artikulua aipatzen duen prozedura hasi da, eta entzunaldia eman zaie ukitutako aldeei, enpresa-elkarteei eta sindikatuen ordezkariari, baita Foru Aldundiari ere, alegazioak egin ditzaten gizartearentzako funtsezkoak diren zerbitzu hauek bermatzeko beharizanari buruz, bai eta, hala badagokio, estali beharreko gutxieneko zerbitzuak proposa ditzaten ere.

Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuaren 3. artikulua aipatutako Sailaren titularrari esleitzen dizkio ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) lan-legeria betearaztearen arloan bereganatutako eskumenak. Zehazki, aipatutako artikuluen 2. j) apartatuak ezartzen du ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak xedatzen duen eskumen delegatua egikaritzea, hau da, zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzerazineko zerbitzuak eskaintzeko ardura duten enpresa, entitate edo erakundeetan greba-eskubideaz baliatzen direnean, Autonomia Erkidegoko funtsezko zerbitzuei jardunean eutsiko zaiela ziurtatzeko behar diren neurriak hartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, bigarren Lehendakariordeak eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko Sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari hartuta, honako hau,

EBAZTEN DU:

Lehena. - Bizkaiko eraikinen eta lokalen garbiketa-sektoreko langileek 2026ko maiatzaren 19, 20 eta 21ean, lanaldi osoan, deitutako greba-eskubidea gauzatzeko, gutxieneko zerbitzu hauek mantendu beharko dira:

1. Oro har.

1.1. Portzentajea kalkulatzeko:

a) Ehuneko 1 baino baxuagoa bada, pertsona bati dei egingo zaio, gutxieneko zerbitzuak eman ditzan.

b) Gainerako kasuetan, emaitza zenbaki zatikiarra bada, gutxieneko zerbitzuak eman beharreko denbora kalkulatzeko, zerbitzu bakoitzeko langileen ohiko lanaldia zenbatekoa den hartuko da kontuan.

2.- Osasun-esparrua.

Osasun-zentroetan behar-beharrezkoa den garbiketa bakarrik egingo da larrialdi-zerbitzuen funtzionamendurako, ebakuntza-geletarako, edukiontzietako hondakin sanitarioak biltzeko, sukalderako, janaria banatzeko eta jaiegun bateko ohiko langileekin ospitaleratutako pertsonen dagokien arreta emateko.

3.- Gizarte-zerbitzuen eremua.

Pertsona adinduen eta mendekotasuna duten pertsonen egoitzetan, eguneko zentroetan eta adingabeen egoitzetan, langileen % 20rekin pertsonen segurtasunerako edo osasunerako arrisku larria eta berehalakoa dakarten eremuak soilik garbituko dira. Horretarako, Laneko Arriskuen eta/edo Osasun Arriskuen Prebentziorako xedapen eta protokolo dokumentatuak izango dira erreferentzia-irizpideak.

4.- Hezkuntza-arloa.

Haurreskoletan, haur-hezkuntzako zentroetan eta haur-hezkuntzako gainontzeko dependentzietan, eta haurtzaindegietan, egunero garbituko dira komunak, zoruak eta piletak, eta hondakin organikoak bildu eta kenduko dira. Zeregin horiek pertsona batek egingo ditu, horretarako ezinbestekoa den gutxieneko denboran, eta ez du inoiz ere eguneroko lanaldia baino lanaldi luzeagorik egingo.

Lehen eta Bigarren Hezkuntzan, 2026ko maiatzaren 21ean, bainugela eta komunak garbituko dira, eta hondakin organikoak bildu eta erretiratuko dira. Zeregin horiek pertsona batek egingo ditu, horretarako ezinbestekoa den gutxieneko denboran, eta inola ere ez du ekarriko ohiko lanaldia baino luzeagoa izatea.

Bigarrenena. – Agindu honen lehenengo ebazpen-zatian ezarritako gutxieneko zerbitzuak ez dira aplikatuko berariazko greba-deialdien eraginpean dauden eta gutxieneko zerbitzuak ezartzen dituen beste agindu baten edo batzuen xede diren eraikin, lokal eta egoitzetan.

Hirugarrena. – Dagozkion administrazio-izapideak betez gero, aipatutako zerbitzuak aldatu ahal izango dira grebaren iraupenagatik, edo arrazoi higieniko biosanitarioak edo batbateko ezohiko arrazoiak direla-eta ezinbestekoa baldin bada.

Laugarrena. – 1. Grebarako eskubidea erabiltzen ez duten langileek emango dituzte lehentasunez aipatutako zerbitzuak.

2. Langileen ordezkariari entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko ditu gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileak eta langile horiek, txandaka, bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, orain arte esandakoak eta aurreko artikuluan nahiz indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu beharko dira.

Bosgarrena. – Agindu honen aurreko apartatuetan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketan edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontratuzat joko dira eta horiek egiten dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.



Seigarrena. – Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

Zazpigarrena. – Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

Zortzigarrena. – Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki, agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daiteke organo honetan, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Era berean, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duenez, horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, ebazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen,

MIGUEL TORRES LORENZO
BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA
EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA